

# KANPAINAREN GIDA



## **NOTA SOBRE EL LENGUAJE**

En la Confederación Don Bosco, trabajamos por igual mujeres y hombres, chicos y chicas, niñas y niños. Pensamos que es importante contar con la participación de todos y todas y no entendemos que haya diferencias por cuestión de género.

Este manual ha sido escrito tratando de utilizar un lenguaje igualitario y no sexista aunque, en algunos casos y para facilitar la lectura, se hace uso genérico del masculino para designar a los dos sexos.

## KANPAINAREN GIDA

0.0 Pasaporte kanpaina Espainiako Don Bosco Gazte Zentroyen Konfederazioaren ekimena da, osasunerako hezkuntzaren esparru barrukoa. 13 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta dago, bereziki bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden gazteei, izan ere, gazte hauen ezaugarri soziodemografikoak direla eta, bereziki zaugarriak dira drogen kontsumoaren eta adikzioen aurrean.

Programa honen helburu nagusia da adingabeak alkohola kontsumitzen hasten diren adina atzeratzea. Alkoholaren kontsumoaren eta neurrigabeko kontsumoaren ondorioen inguruan informazioa eman eta sentsibilizatzea lortu nahi da, aldi berean gizarte bitartekarien eskura jarrita prebentzioa lantzeko tresna eta prestakuntzak.

Kanpaina honetan aurki daitezkeen materialak eta informazioa ezin hobeak dira bitartekariak gazte zentro eta elkarteetan garatzen duten hezkuntza lanerako, pertsonaren garapen integralerako astialdirako eta aisialdirako benetako aukera hezigarriak eskaintzen baitituzte.

Elementu erakargarri eta berritzaile gisa, Don Bosco Konfederaziotik formatu digitalako aplikazio bat diseinatu da, gazteek kanpaina honi esker lortutako gaitasun eta ezaguerak modu erakargarri eta berritzailean agertzeko helburua duena.



## ZERGATIK DA BEHARREZKOA ALKOHOLAREN KONTSUMOA PREBENITZEKO KANPAINA BAT?

Soberan frogatu egin da hainbat azterlanetan, komunikabidetan, inkestatan eta argitalpenetan alkohola kontsumitzen hasteko adina 14 urte ingurukoa izaten dela.

Halaber, nerabe eta gazteen artean onartuta eta zabaldua daude kontsumo modu jakinak ere, hala nola neurrigabeko kontsumoa edo mozkorraldia (binge drinking). Izan ere, pertsona gehienek uste dute aldian behingo kontsumo horrek ez duela eragin kaltegarririk osasunerako, baina hori ez da egia.

Alkohola bestelako substantzien kontsumorako lehen urratsa izan daiteke eta, gainera, organismorako ondorio kaltegarriak ditu bere horretan, jokabidean eta gizarte harremanetan. Horregatik beharrezkotzat jotzen da hartzaileen ingurunean prebentzio lana egitea.

Alkohola da gizartean gehien kontsumitzen eta onartzen den droga, eta bereziki deigarria da alkoholaren zein cannabisaren kontsumoaren inguruan dagoen arrisku pertzepzio txikia. Ondorioz, kontsumo hauen inguruan sortu diren mitoak gezurtatu behar dira eta lotuta daramatzaten arrisku eta kalteak ezagutzera eman behar dira.

Alkohola kontsumitzeak osasun fisiko, mental eta sozialerako arriskua dakar eta, horrez gain, helduaroko mendekotasun posibleen faktore argia da.



Ondorio fisikoekin batera, hala nola memoriak eta burmuineko zelulek jasaten dituzten kalte iraunkorrak, metatutako koipeak, etab., kontuan hartu behar dugu alkohola kontsumitzeak arazoak sortzen dituela jokabidean eta gizarte harremanetan, esaterako: seni-deekiko, ikaskideekiko eta irakasleekiko harremanen alterazioak, eskolako emaitza txarrak, eta liskarren, borroken edo erasoen moduko bizikidetzara arazo ugari.

## GURE KONPROMISOA

Proposamen honen jatorria da gazteen prebentzio beharrei erantzuna emateko beharra, gazteei informazio objektiboa helarazteko eta euren osasun ohiturak hobetzen laguntzen dieten jarduera ludiko-hezigarriak eskaintzeko, hartara gazteen eta euren inguruko bizi kalitatea hobetuta.

Gizarte osoari dagokio adingabeen aldetiko alkoholaren kontsumoak dakartzan osasun eta gizarte arriskuen inguruko kontzientzia hartzea, adingabeen organismoa eta nortasuna garapen betean daudela kontuan hartuta.

Don Bosco Konfederazioan badakigu gazte guztiek ez dituztela lotzen alkoholaren kontsumoa eta ongi pasatzea. Gazte askok astialdiaz gozatzeko beste modu batzuk ezagutzen eta baliatzen dituzte, besteak beste: kirola egitea; mendira joatea; antzerki, musika edo aisialdi taldeetan parte hartzea; elkarteekin lankidetzan aritzea, etab. Hala ere, gazte asko ez dira ohartzen alkoholaren kontsumoak banakako mailan zein gizarte mailan dakartzan arriskuez. Horrekin batera, zenbaitetan, prestaketa falta zaie erabaki autonomoak hartzeko, gizarte trebetasun gutxi dituzte, autoestimu baxua, etab. Hori guztia dela eta, gure asmoa ez da bakarrik sentsibilizazio kanpaina bat eskaintzea, baizik eta informazio hori aisialdirako, ongi pasatzeko eta sozializatzeke benetako aukera sorta zabalarekin osatzea.

Hainbat abantaila ditugu gure alde, alkoholaren kontsumoarekiko alternatibak diren gazteen astialdirako jarduerak garatzen dituzten erakundeak baikara. Informazioa ingurune eta errealtate berean bizi diren baina apur bat helduagoak diren gazteen bitartez helarazten denean, entzutea errazten da eta informazio hori hobe onartzen dute. Azkenik, gure erakundeek pertsonaren garapen integralera eta erabaki autonomoak hartzeko gaikuntzara bideratutako hezkuntza aukerak eskaintzen dituzte.



## **BESTELAKO ERAKUNDE ETA BITARTEKARIEI IREKITAKO KANPAINA**

Kanpaina hau gazteen eta haien gaitasun eta potentzialaren ikuspegi positiboa duten elkarte eta erakunde guztien eskura egongo da. Materialak webgunean eskuragarri daude gazte programetako prebentzio lanetan erabili nahi dituzten elkarteentzat, eta baita nerabe eta gazteekin egiten dituzten hezkuntza esku-hartzeetan erabili nahi dituzten hezitzaile guztientzat ere.

## **PREBENTZIOAREN ALDEKO GAZTE ZENTRO ETA ELKARTEAK**

Don Bosco Konfederazioa, Gazte Federazio eta Zentro salesianoekin batera, haurtzaro eta gaztaroaren defentsan eta sustapenean lan egiten duen elkarte da, bereziki bazterkeria arriskuan dauden haur eta gazteen alde, betiere gazteen protagonismoa eta Don Boscoren hezkuntza estiloa ardatz hartuta.

Hainbat ekintza eta programa garatzen ditugu haur eta gazteen inguruko prebentzioaren, hezkuntzaren eta sustapen integralaren alorrean. Jarduera horiek gazte zentro eta elkarteek gauzatzen dituzte, tokiko mailan, eta federazioek, autonomia erkidego mailan.

Gure ustez, prebenitzea da gazte bakoitzak bere potentzial guztia garatzeko behar dituen baldintza egokiak sortzea. Halaber, prebentzioak balio du ere dagoeneko arrisku eta abandonu egoeren ondorioak sufritzen dituzten gazteak berreskuratzeko ere. Are gehiago, prebentzioa da gazte hauengan oraindik ere bizirik dauden energiak pizteko modurik onena, hartara kalte are handiagoa saihestuta.

Prebentzioa hainbat gizarte sareren bitartez baliatzen da, auzoan, eskolan eta gainerrako erakundeetan.


Salesianoek eta María Auxiliadoraren Alabek San Juan Boscoren eta Santa María Mazzarelloren hezkuntza proiektua eguneratzen dute.



Gazte zentro salesianoetan ahalegin handia egin da oratorioak eta gazte zentroak konfiguratzeko astialdiko hezkuntzarako egitura gisa, gazteen interesa pizteko eta euren hazkunde pertsonalean parte har dezaten lortzeko gaitasunarekin.

Zalantzarik gabe, gaur egungo kulturaren adierazpenak astialdiaren bitartez bideratzen dira eta astialdi horren inguruan antolatzen dira ere bititza pertsonala eta soziala. Gazteek bereziki astialdian eta aisialdian aurkitzen dute autoerrealizaziorako aukera bat, eta euren nortasuna adierazteko aukera ere. Horregatik dugu aisialdi osasungarri baterako aukerak aurkezteko horrenbesteko interesa.

Gure hezkuntza proposamena pertsona erdigunean jartzen duen hezkuntza batean oinarritzen da, gazteen eta hauen gaitasunen ikuspegi positiboa mantenduta, pertsona bakoitza den moduan onartuta –bere arazo, itxaropen eta helburuekin–, desberdintasunak integratzen lagunduta, hazkunde pertsonala zainduta, gazteen bizi proiektua sustatuta, errealitatea gainerakoekin partekatuta eta gizartearen eta Elizaren barruan protagonismoa aurkitzeko eta bizitzaren zentzua bilatzeko ahalegina eginda.



## BITARTEKARIEN EGINKIZUNA

Kanpaina honetan, bitartekarien eginkizuna oso garrantzitsua da, haien esku egon baitira "0,0 Pasaporte" aplikazioaren erabakiak, diseinua eta sorrera. Era berean, euren iritzi, ikuspegi eta esperientziak partekatu dituzte kanpainarako beharrezkoak diren material eta jardueren inguruan. Gure filosofiaren arabera, bitartekariak ongi ezagutzen dituzte dauden errealitate guztiak eta, beraz, haien ikuspegia, esperientzia eta ezaguerak ezinbestekoak dira kanpaina hau garatu ahal izateko.

Aplikazio mugikorraren erabileraren eta kanpainako gainerako ekintzen bitartez, alkoholaren kontsumo goiztiarra eta neurrigabeko kontsumoa prebenitu nahi dira, jarraian adierazitako alderdiak jorratuta.

- Drogen eta hauen ondorio kaltegarrien inguruko informazioa zabaltzea.
- Aisialdi osasungarrirako alternatibak ezagutzera ematea.
- Alkoholarekin lotutako mitoak gezurtatzea.
- Kontsumoa bultzatzen duten faktoreak identifikatzea eta erresistentzia eta errefusatze gaitasunak garatzea, horretarako autonomia pertsonala eta erabakiak hartzeko gaitasuna sustatuta.
- Norbanakoaren gaitasunerako eta gizarte interakziorako trebetasun generikoak garatzea.

Horretarako, egiazko informazio egokia behar da; gazteek ezagutu behar dituzte alkoholaren kontsumoaren eraginak eta arriskuak zeintzuk diren. Era berean, erabaki autonomoak hartzeko gaitasuna areagotu behar da, horretarako autoestimua, gaitasun kritikoa, tolerantzia, sormena, jarrera positiboa, frustrazioari aurre egiteko gaitasuna eta abar landuta.

Gure aburuz, informazio honek lortu nahi dugun helburua beteko du bitartekariak gazte eta adingabeei helarazten badiete. Halaber, gizarte bitartekaririk gabe, kanpaina honek ez luke zentzurik izango, izan ere, bitartekarien eta hartzailen arteko harremanetan eta interakzioan oinarrituta dago.





## KANPAINAREN MATERIALAK ETA NOLA ERABILI


0.0 Pasaportea kanpaina material hauen laguntzarekin garatzen da:

### 0.0 PASAPORTEA APLIKAZIOA:

Tresna digital hau garatu da bitartekariak gazte zentroetan erabil dezaten hezkuntza tresna gisa, baina baita jardueren hartzaileek ere erabil dezaten euren astialdian, banaka edo lagunartean. Aplikazioa diseinatzeko nerabeek, bitartekariak, hainbat profil profesionalak eta gurasoek osatutako talde baten laguntza jaso dugu.

### KANPAINAREN WEBGUNEA:

Barne ditu kanpainaren helburuen azalpena, deskargatzeko materialak, aplikaziorako jarraibideak eta gainerako intereseko informazioa.



## KANPAINAREN GIDA

Kanpainaren planteamendua azaltzen du, Don Bosco Konfederazioaren prebentzioaren aldeko lanaren esparruan, eta baita kanpainaren xede eta helburuak eta huraosatzen duten materialen azalpena ere.

## MATERIAL DIDAKTIKOAK

euskarri hauek balio dute bitartekariak kanpaina euren errealitatara egokitzeko eta adingabeen alkohol kontsumoaren prebentzioa lantzeko.

KANPAINAREN KARTELAK/PLOTTER: Aurkezpenak ilustratzeko balioko dute, kanpaina garatzen den tokietan. Espazioetan eta taldeka egindako esku hartzeetan giroa sortzeko helburua dute.



Este material ha sido elaborado por la Confederación Don Bosco como parte de la Campaña Pasaporte 0,0 dentro de la línea de Educación para la Salud. Ha sido creado como recurso orientativo por lo que está abierto a las aportaciones y la experiencia de los agentes sociales que los vayan a utilizar. Esperamos que la información y las dinámicas ofrecidas os sean útiles en vuestra labor preventiva.

Asimismo, queremos agradecer y alabar el trabajo y la dedicación de los jóvenes voluntarios como impulsores de hábitos de vida saludable.



[www.pasaporte00.org](http://www.pasaporte00.org)



**DonBosco**  
confederación  
de centros juveniles  
de España

	GOBIERNO DE ESPAÑA	MINISTERIO DE SANIDAD, CONSUMO Y BIENESTAR SOCIAL	SECRETARÍA DE ESTADO DE SERVICIOS SOCIALES
	GOBIERNO DE ESPAÑA	MINISTERIO DE SANIDAD, CONSUMO Y BIENESTAR SOCIAL	DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN EL PLAN NACIONAL SOBRE DROGAS
	POR SOLIDARIDAD <b>OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL.</b>		